

Gaizka Gabantxo jn.
Lehendakariordea

05/02 IRIZPENA

Javier del Campo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Ochoa jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko urtarrilaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako pertsona bakarreko gobernu organoak hautatzeko prozesua arautzen duen Dekretua aldarazteko dekretu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako pertsona bakarreko gobernu organoak hautatzeko prozesua arautzen duen Dekretua aldarazteko dekretu proiektua, kasuan kasuko aginduzko txostena eman dezan.

I.- AURREKARIAK

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoarenak, xedatzen zuenari jarraituz, hainbat dekretu eta agindu eman zen eta horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen aginte-organok hautatu eta eratu ziren.

Azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak, ikastetxeen parte-hartzeari, ebaluaketari eta aginteari buruzkoak, aldaketa garrantzitsuak egin zituen, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko kideen agintealdiaren iraupenari eta berritze partzialerako prozesuari buruz. Arautegi berriari egokitze aldera, 1996ko azaroaren 12ko 258/1996 Dekretua eman zuten, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen dekretua. Dekretu horrek xedatutakoa kontuan izanda, hautaketa prozesuaren deialdia egin zen eta ikastetxeetan, Ordezkaritzako Organo Gorena eratu zen; izan ere, organo horren funtzioetako bat ikastetxeko zuzendaria aukeratzea da.

Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoak aldaketak egin ditu gobernu organoen izendapenean, eta aldaketok ondoko ataletan azaltzen dira.

Aurkeztu zaigun dekretu proiektua kontuan izaki, artikulua batzuk ez datoz bat Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritakoarekin, beraz, kasuan kasuko aldarazpenak egin behar zaizkio dekretuari.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek bederatzi artikulua eta azken xedapen bat dauzka.

166 zenbakiko Dekretuaren zenbait artikulua aldarazi dira, jarraian azaldu bezala:

Lehenengo artikulua 3. artikulua –agintaldien iraupenari buruzkoa– aldarazi du, hots, pertsona bakarreko gobernu organoen agintaldia 4 urtekoa izan beharrean, 3 urtekoa izango da.

Bigarren artikulua zuzendari kargurako hautagaia izateko baldintzei buruzko artikulua aldarazi du.

Hirugarren artikulua pertsona bakarreko gobernu organoen hautaketa eta izendapenari buruzko 5. artikulua aldarazi du.

Laugarren artikulua 10. artikulua –Eskola Kontseiluak ikasketaburu eta idazkaria izendatuko ditu, lehen hautatutako zuzendariak proposatuta– aldarazi du.

Bosgarren artikulua 11. artikulua –Hezkuntza Lurraldeko ordezkariak zuzendaria izendatuko du, hautaketaren ondoren eta prestakuntza bereziko ikastaroak gainditu ostean– aldarazi du.

Seigarren artikulua 12. artikulua –zuzendaria eta zuzendaritza taldea hiru urterako izendatuko dira, eta izendapena uztailearen 1etik aurrera izango da eragingarria– aldarazi du.

Zazpigarren artikulua 1. artikulua –ez denean hautagairik aurkeztu edo hautagaiek ez dutenean lortu beharrezko erabateko gehiengoa– aldarazi du.

Zortzigarren artikulua 14. artikulua –ikastetxe sortu berriak– aldarazi du.

Bederatzigarren artikulua azken xedapen gehigarria aldarazi du.

Azken xedapenak zehazten du noiz hasiko den dekretuaren indarraldia.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitaterik kanpoko ikastetxe publikoetako pertsona bakarreko gobernu organoak hautatzeko prozesua arautzen du dekretu proiektuak.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan, zuzendaritza karguak berritzeko azken deialdietan erabili izan den maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretua hartu da oinarri, eta marko juridikoa, berriz, ikastetxeetako partaidetza, ebaluazioa eta gobernuari

buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoa (LOPEGCE) eta Euskal Eskola Publikoaren Legea izan dira.

Dekretu proiektuak 116/1997 Dekretuaren zazpi artikulua eta xedapen gehigarria aldarazten ditu, eta Euskal Eskola Publikoaren Legean xedatutakoari egokitzen dizkio.

Aurrekoetan ez bezala, dekretu proiektuarekin batera, Hezkuntza Sailak ez du txosten juridikorik edo memoria azaltzailerik aurkeztu.

Gauzak horrela, Euskadiko Eskola Kontseiluaren aburuz, dekretu proiektua eta bertan azaldutako aipamenak ez datoz bat Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoan xedatutakoarekin; izan ere, hamargarren azken xedapenean ezarri bezala, lege hori organikoa da, eta bertan salbuespen batzuk azaltzen dira, baina horietako bat bera ere ez dago ukitutako artikuluetan.

Gure ustez argi dago lege organikoak eta aurreko oinarrizko legeriak zeharo desberdin arautzen dutela zuzendariaren izendapena.

Kalitatearen Legearen arabera, hautaketa merezimendu-lehiaketaren bidez gauzatzen da, eta batzorde mistoak —Hezkuntza administrazioen ordezkariak eta ikastetxearen ordezkariak— ebatziko du, V. Tituluko VI. Kapituluan -“Ikastetxe publikoetako zuzendaria hautatu eta izendatzeaz”- ezarri legez. Hortaz, Kalitatearen Legearen 86 eta 88. artikuluetan ondokoa dago arauturik:

“86. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu eta izendatzeko, ikastetxearen hezkuntza mailako eta erregimeneko karrerako irakasle funtzionarioen arteko merezimendu lehiaketa egingo da.

2. Hautaketa publikitate, merezimendu eta gaitasun printzipioekin bat etorrita egingo da.”

“88. artikulua. Hautaketa prozedura.

1. Ikastetxe publikoetako zuzendariak izendatzeko, Hezkuntza administrazioek merezimendu lehiaketaren deialdia egingo dute.

2. Batzorde batek egingo du hautaketa, eta batzorde horren kideak ondokoak izango dira: Hezkuntza administrazioetako ordezkariak eta kasuan kasuko ikastetxeko ordezkariak –batzordearen ordezkarien ehuneko hogeita hamar gutxienez–.

3. Hautagaiak hautatzeko ondokoak hartuko dira kontuan: hautagaiak egiaztatutako merezimendu akademiko eta profesionalak, eta zuzendari karguetan izandako esperientzia eta irakasle gisa egindako lana. Bereziki baloratuko da zuzendaritza lanetan izandako esperientzia.

4. Hezkuntza administrazioek batzordeetako kide kopurua eta Administrazioa eta ikastetxeetako ordezkarien arteko proportzioa zehaztuko dituzte. Halaber, irizpide objektiboak eta hautaketari aplikatu beharreko prozedura ezarriko dituzte.”

Aitzitik, dekretu proiektuaren helburua da beheragoko lerruna duen araua — 116/1997 Dekretua— Euskal Eskola Publikoaren Legeari egokitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko araua aurreko lege organiko batean –LOPEGCE- dago oinarrituta; hala ere, LOCEk, besteak beste, LOPEGCEren II. titulu osoa -ikastetxe publikoetako gobernu organoari buruzkoa- indargabetu zuen xedapen indargabetzaile bakarraren –10/2002 Legearen 5. atala- bidez. Horren ondorioz, Eskola Kontseiluak edo

OOGk aukeratuko dituzte pertsona bakarreko karguak, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 33. artikuluan xedatu bezala:

“33.2. artikulua- Zuzendaria ikastetxeko ordezkari-organoren gorenak hautatuko du gehiengo osoz, gutxienez ikastetxean urtebete eta irakaskuntzan hiru eginak dituzten irakasleen artean (.../...)”

Bi arauon arteko kontraesanak ikusita, zalantzarik gabe, lehentasuna daukana goragoko lerrun juridikoa duena da, hau da, Kalitatearen Legea, batez ere ikastetxe publikoetako zuzendaritza karguak hornitzeko ereduari buruzkoa delako. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Batzorde Juridiko Aholkulariak txostena eman arte, Euskadiko Eskola Kontseiluaren aburuz, proposatutako dekretu proiektua ez dator bat indarreko antolamendu juridikoarekin, hau da, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoarekin.

Horrez gain, Kontseiluak behin eta berriro esana du beharrezkoa dela zuzendaritza funtzioa ikuspegi zabalagoatik arautzea, hau da, ikastetxeen autonomiaren garapenerako markoan eta kontuan hartu behar direla karguak hornitzeko sistema, eskumenen hedapena eta lan baldintzak. Baina itxaropen hori ez da bete.

Egia esan, proposatutako dekretu proiektuaren ondorio batzuk hezkuntza erkidegoaren itxaropenekin bat datoz. Esaterako, hautagaia izateko aukera gehiago, alde aurretiko egiaztapenaren baldintza desagertzen delako; hezkuntza erkidegoaren eragin handiagoa, zuzendaria aukeratzeko garaian, Eskola Kontseilua edo OOG direlako zuzendaria hautatzen dutenak; eta abar.

Bere garaian, Eskola Kontseiluak bere iritzia plazaratu zuen estatuko marko juridiko berria, LOCErena eta berorren prozedurak*, eta hezkuntza erkidegoko ordezkarien eskariak –aurreko paragrafoak– bateragarri egiteko moduez. Orain ez da unerik egokiena horretaz berriro eztabaidatzeko, orain garrantzitsuena da azpimarratzea proposatutako araua ez zaiola egokitzen Kalitatearen Legeari edo sailburuak lege organiko horren filosofia orokorrarekin behin eta berriro azaldu duen jarrera kritikoa bat datorrela gurearekin.

Eskola Kontseiluak badaki zuzendaritza karguak berritzeko prozedura berriro atzeratzeak kalte handia eragingo liokeela ikastetxeen antolakuntzari. Hain zuzen ere, ez litzateke astirik egongo hautatutako zuzendariari hasierako trebakuntza emateko, beraz, izendapena ikasturtea hasi baino lehen egin beharko litzateke. Azpimarratu behar da oraindik aplikatu ez den Kalitatearen Legea eta Euskal Eskola Publikoaren Legea bat datozela, alegia: hautagaiak ez du zertan aurkeztu alde aurretiko egiaztapena, baina izendapenaren aurretiko hasierako trebakuntza gainditu beharko du.

Gure iritziz, Batzorde Juridiko Aholkulariak txostena plazaratzen badu proposamenaren kontra, baliteke 2004-05 ikasturtean gai hori arautu barik geratzea, beraz, egungo karguen agintaldia derrigorrez luzatu beharko litzateke, aurreko ikasturtean gertatu bezala, inork nahi izan ez arren.

Horren guztiaren ondorioz, hauxe da

PROPOSAMENA:

Hezkuntza Sailak *ikastetxe* publikoetako pertsona bakarreko gobernu organoak hautatzeko prozesua ahalik eta lasterren egokitzea oinarrizko arautegian ezarritakoari, egungo egoera derrigorrez luzatzearen ondorio kaltegarriak saihestu ahal izateko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2005eko urtarrilaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIORDEA,

Iz. Gaizka Gabantxo

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.

(* *Eranskina: Batzorde Iraunkorrek 2004/07/01ean hartutako erabakia.*

Euskadiko Eskola Kontseilua. Batzorde Iraunkorrek 2004/07/01ean onetsitakoa

Aurkibidea

Sarrera: Dekretuaren denbora-markoa.

Eduki esparrua: zuzendaritza eredua eta baldintzak.

1. Berritze prozedura.
2. Zuzendariaren, zuzendaritza taldearen, Eskola Kontseiluaren eta Klaustroaren funtzioak (eskumenak).
3. Ikastetxearen kanpoko harremanak.
4. Taldekideen lan baldintzak.

Sarrera: Dekretuaren denbora-markoa.

Euskadiko Eskola Kontseiluak gonbitea jaso du ikastetxe publikoetako zuzendaritza funtzioa arautuko duen Dekretuaren inguruko iritzia emateko; izan ere, dekretu hori 2004ko amaieran edo 2005eko hasieran argitaratuko omen da, eta berorren zirriborroa Euskadiko Eskola Kontseiluari igorri zaio irizpena eman dezan.

Gauzak horrela, Batzorde Iraunkorrek zirriboratu behar ditu mota horretako dekretuak bildu beharko lituzkeen baldintzak.

Lehenengo eta behin, proposamenaren data, hau da, dekretuaren denbora-markoa aztertu dugu eta egokia iruditzen zaigu. Kontseiluak agindu proiektu baten berri jakin du, eta proiektu horren asmoa zen ikastetxe zehatz batzuetako zuzendarien hautapen eta izendapen prozedura arautzea, ikastetxe horietan, izendapena urtebeterako egin baitzen salbuespen modura 2003-04 ikasturtean. Azkenik, hasierako asmoa ez da gauzatu, eta gure aburuz, erabaki egokia izan da.

Aginduak unibertsitetez kanpoko ikastetxe publikoen herenean edo laurdenean izango zukeen eragina, baina epe ertainerako ondorioak izango zituzkeen hautapen sistema ezarriko zukeen Kalitatearen Legean (LOCE); dena den, orain marko hori indarririk gabe geratu da, curriculumaren antolaketaren gaineko erabaki nagusiei dagokienez, eta ikastetxeetako antolakuntza eta eskumen alorrak arautzearen inguruan emandako iritzien arabera, LOCEk gauzatutako aldaketak preskribatu beharko lirateke eta LOGSE eta Euskal Eskola Publikoaren Legean jasotako autonomia eta partaidetza printzipioak berreskuratu.

Sailaren asmoa -partaidetza foro batzuetan eztabaidatu da dagoeneko- goragoko lerruneko araua -dekretua- argitaratzea zen, zeinak zuzendaritza lana eta berorren karguak hornitzeko prozedura arautu beharko dituen. Gure ustez, bada, Dekretuaren markoan, egokiagoa da berritze mekanismoari buruzko erabakiak atzeratzea 2004-05 ikasturtearen bigarren hiruhilekora arte, zeren ikasturte honen amaieran amaituko baita egungo zuzendaritza taldeen agintaldia -lau urtekoa zen eta 2002eko ekainean hautatu zituzten-. 2000-2002ko txostenean azaldu genuen bezala, garai hartan egin ziren izendapenik gehienak -%96, Bizkaian eta % 72, Gipuzkoan- lehen aipatutako eperako -lau urte- egin ziren.

Hortaz, bada, ikastetxeetako zuzendaritza taldeak berritzeko sistema finkatzeko garaia heldu da, eta sistema hori eragingarria izateaz gainera, Hezkuntza Sailak eta hezkuntza eragile nagusiek garatu nahi duten ikastetxe publikoko ereduari egokitu beharko zaio.

Horrez gain, ez da komenigarria ahaztea zuzendaritza talde berriak hautatu baino lehen, ikastetxeetako Eskola Kontseiluen plazen erdia berritu behar dela.

Eduki esparrua: zuzendaritza erdua eta baldintzak.

Argi omen dago une honetan LOCE dagoela indarrean, zuzendaritza funtzioa arautzeko. Hala eta guztiz ere, antza denez, dekretua bi urtez bertan behera uzteko planteamenduekin bat eginda, ikastetxeetako zuzendaritza eta kudeaketa ereduak ere aldarazi behar dira.

Autonomi erkidegoetan, alderdi politikoek eta hezkuntza eragileek argi eta garbi egin dute eskolako sektore guztien (gurasoak, irakasleak, eta abar) partaidetza aldeztu duen markoaren alde; halaber, ikastetxeei eskumen gehiago esleitu behar zaie eta ebaluazioa indartu behar da, hobekuntza eta kontrolerako tresna gisa.

Eredu hori bateraezina da LOCEren ereduarekin. Hortaz, estatuko markoa aldakorra dela kontuan izanda arautu beharko da, eta gure erkidegoa prest egon beharko da dagozkion neurriak garatzeko, zuzendaritza taldeen kudeaketa arrakastatsua izan dadin.

Kontuan hartu behar da autonomi erkidegoko hauteskundeak gainean ditugula, beraz, konpromisoen norainokoa mugatuta dago.

Hezkuntza antolakuntzaren ikuspegitik, gure ustez, dekretua garapenerako oinarritzko araua izan behar da, horren ondorenez, osatu beharra dago. Dekretuak, azaletik baino ez bada, txosten honetan jasotako esparru guztiak arautu beharko lituzke, eta dekretua martxan jartzeko aginduak eta ebazpenak eman beharko lirarteke.

Ondoko ataletan, ondorengoak aztertuko ditugu: lehenengo eta behin, karguak berritzeko prozesua; bigarren, ikastetxeetako organoen funtzioen garapena, LOCEn alboratu baitziren; hirugarren, ikastetxeen kanpoko harremanak –Administrazioarekikoak batez ere–, alor horretan, alderdion konpromisoak bil daitezkeelako; eta azkenik, zuzendaritza karguentzako pizgarri eta baldintzen zerrenda.

1. Berritze prozedura.

Indarreko LOCEk aldaketa batzuk egin ditu, LOGSE eta LOPEGCEk xedatutako markoaren aldean:

- Zuzendaria aukeratu beharrean, merezimendu lehiaketa kontuan izanda hautatuko da.
- Ikastetxeak eta Administrazioak osatutako batzorde mistoak egingo du balorazioa; lehen, OOG zen aukeraketa egiten zuena.
- Hautaketa batzordea osatzeko garaian, autonomi erkidego bakoitzak askatasun handia dauka. Lehen aipatutako azken agindu proiektuan azaldutako formula hauze zen: 3 (ikastetxearen ordezkariak) + 2 (Administrazioa).
- Hemendik aurrera ez da beharrezkoa aldeztu aurretiko egiaztatzea aurkeztea hautagaia izateko. Baldintza horren ordez, ondorengo edo osteko trebakuntza jasoko da.
- Agintaldia 4 urtekoa izan beharrean, 3 urtekoa izango da, baina ebaluazioa aldekoa bada eta interesatuak nahi izanez gero, agintaldia automatikoki luza daiteke 3 urtez, autonomi erkidego bakoitzean erabakitakoaren arabera. Horren

ondorenez, orokorrean esan daiteke luzapena 4 urtetik 6 urterakoa dela gutxienez. Hautaketa batzordean bezala, Ebaluazio batzordean, autonomi erkidego bakoitzak lehentasuna eman diezaioke ikastetxearen ordezkariari edo Administrazioaren ordezkariari.

Ikastetxe publikoetako eragileek uste dute murriztu egin direla LOCEk Eskola Kontseiluari atxiki dizkion eskumenak. Eta halaxe da. Dena den, Estatuko egungo joera politikoaren arabera, organo horri eskumenak itzuli nahi zaizkio, ikastetxeak baliabide eta autonomia gehiago eskuratzen dituen heinean, eskumenok kudeatu ahal izateko; gure aburuz, egokiena da LOCEaren markoan garatuko den izendatze sistema Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritako sistematik ahalik eta hurbilen egotea, eta horretarako ondoko neurriak proposatzen ditugu:

- ✓ Aldez aurretiko nahitaezko egiaztagiriaren ordezkari, ontzat jotzen da hasierako trebakuntza ezartzea.
- ✓ Ontzat jotzen da zenbait kasutan zuzendaritzarako kanpoko hautagai bat onartzea.
- ✓ Hautaketa batzordean, ikastetxearen ordezkari gehiengoa izango da.
- ✓ Baremoan, lehentasuna emango zaio zuzendaritza proiektuari (hau da, merezimendu guztien puntuazioaren %50 gutxienez), kudeaketa kontrola bermatze aldera.
- ✓ Kontuan hartuko da hautagaiak eta bere proiektuak Klaustroan eta Eskola Kontseiluan lortu duen puntuazioa, nahitaez aurkeztu beharko baitu bertan.
- ✓ Merezimendutzat joko da aurretiko prestakuntza.
- ✓ Dekretuan, Ebaluazio Batzordearen osaera jaso beharko da, nahiz eta 3 urte itxaron beharko den eragina izan dezan, eta ikastetxearen ordezkari gehiengoa izan beharko da.
- ✓ LOCEk agintaldia luzatzeko bidea ireki zuen, eta dekretuan luzapen bat onartuko da gehienez, baldin eta balorazio ona lortu badu eta prest badago beste 3 urte jarraitzeko. Zuzendaritzan sei urte segidan egin ostean, hautagai berriak aurkezteko epea irekiko da.

2. Zuzendariaren, zuzendaritza taldearen, Eskola Kontseiluaren eta Klaustroaren funtzioak (eskumenak).

Antolakuntzaren ikuspegitik, LOCEk ordezkarietako organo kolektiboek (Eskola Kontseilua eta Klaustroa) ikastetxe publikoetan dituzten eskumenak mugatu ditu, Euskal Eskola Publikoaren Legeak emandakoak hain zuzen, baina mugapen horrek ez du ekarri zuzendariaren eskumenak gehitzea, eta are gutxiago zuzendaritza taldearenak, desagertu egin direlako.

Hortaz, ikastetxeak erabakimena galtzen du, eta ondorioz, autonomia murrizten da Administrazioari begira. Gauzak horrela, zuzendaritza ardurak hartzea gaitzagoa da: aurreko eredu demokratikoan, zuzendaritzak taldeka hartutako erabakiak betearazten bazituen, bai eta berrikuntza eta partaidetza sustatzen, orain, ordea, organoan betearazpen eskumenak desagertu direnez, zuzendaritzak ez dauka ia kudeaketarako baliabiderik.

Nahiz eta LOCEk azaldu Eskola Kontseilua eta Klaustroa partaidetza organoak direla —beraz, eskumenak murriztu egin dira—, horrek ez du esan nahi erabakimena guztiak kendu zaizkienik; hain zuzen ere, LOCEn xedatutakoaren arabera, Kontseiluak hezkuntza proiektua, barneko erregimeneko araudia eta aurrekontuaren zirriborroa onetsi beharko ditu. Hortaz, organo horrek erabakiak hartu ahal izango ditu arautu gabeko gaien inguruan. Hala ere, azpimarratu behar da Eskola Kontseiluari atxikitako ebaluazio eskumenak indartu egin direla lege horri esker.

Beste alde batetik, nahiz eta Kontseiluak eskumenak galdu, zuzendariak ez ditu bereak gehitu; egia esateko, zuzendariak eskumen bat baino ez du gehitu, hau da, gatazkak

ebaztearena, Kontseiluaren kaltetan. Horrez gain, eskumen hori barneko erregimeneko araudian ezarritakoari egokitzen bazaio, jatorrizko organoari itzul dakioke arazorik gabe. Hortaz, kasu horretan, garrantzitsuagoa da gatazkak konpontzeko prozedura eta tratamendua zehaztea, zehapenei buruzko erabakiak nork hartzen dituen mugatzea baino.

Asmoa da, bada, organo kolektibo batzuei (Eskola Kontseilua, Klaustroa, zuzendaritza taldea) EPLn jaso eta LOCEn alboratu ziren eskumen batzuk itzultzea, beraz, eskumenok indarreko antolamendu juridikoan berreskuratu direnean, ez da inolako eskumen gatazkarik sortu. Hauxe da gure oinarrizko proposamena:

- Zuzendaritza taldeak, eta bereziki, ikasketa buruak irakasle bakoitzari eratzikiko diote lana, Euskal Eskola Publikoaren Legean xedatu bezala: 36.2.f) —*”Zuzendaritza taldeak, irakasle taldeak antolatzeaz gain, ikasturtearen hasieran, irakasleak euren jarduerari eratzikitzeke irizpideak erabakiko ditu, gai horren inguruko arauetan ezarritakoaren arabera”*—eta 41. c) artikulua—*” Ikasketa buruak irakasle bakoitza ikastetxeko unitate bati edo batzuei atxikiko die, 36.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera”*—. Ikastetxeei langileen kudeaketari buruz aintzatesten zaien eskumen bakanetako bat denez, garrantzitsua da eskumen horren aplikazioa bultzatzea.
- Eskola Kontseiluak edo OOGk ikastetxearen urteko plangintza, ebaluazio memoria eta prestakuntza jardueren programa onetsiko ditu. Eta ikasleak onartzea edo ez erabakiko du.
- Klaustroak curriculum proiektua eta hezkuntza jardueren programa landu eta onetsiko ditu.

Dekretu berriak ikastetxeen autonomia sustatzeko neurri orokorren —langileen eta diru baliabideen kudeaketaren ingurukoa, batez ere— aurrerapena azaldu beharko luke, beheragoko lerruneko neurrien bidez garatu ahal izateko.

Oro har, helburua da zuzendaritza lanaren bidez, ikastetxean proiektuak landu ahal izatea, eta asmo hori bat dator zuzendaritzari atxikitako baliabideekin eta kudeaketa eskumenekin.

3. Ikastetxearen kanpoko harremanak

Hezkuntza Administrazioak, sare publikoko kudeaketa eta berrikuntza prozesuak hobetze aldera, ikastetxeen arteko eta ikastetxeon eta ikuskaritza zerbitzuen, *berritzeguneen* eta lurralde ordezkaritzen unitateen eta arduradunen arteko harremanak bultzatuko ditu.

Egun dagoen komunikazioa hobetu eta handitzeko, martxan dauden ekimenak bultzatuko ditu eta sistemaren baliabide funtzional eta teknologikoen optimizazioa sustatuko du.

4. Taldeko kideen lan baldintzak

a) Baldintza ekonomikoak. Ardurak hartzeko pizgarri nagusia dira lan munduan, eta ikastetxeak ez dira salbuespena. Egungo alokairu osagarriak eta bestelako lanbideetan edo ikastetxe pribatuetan ematen direnak zeharo desberdinak dira. Era berean, EAEn arautzeke dago beste erkidego batzuetan indarrean dagoen diru osagarrien baterakuntza partziala.

Kontseiluaren aburuz, zuzendaritza karguentzako alokairu osagarriak nabariki gehitu behar dira, ikastetxe motaren arabera. Etapa edo zikloko koordinatzaileei eta proiektuen koordinatzaileei diru pizgarriak ematen hasi behar zaizkie. Komenigarria izango litzateke karguentzako baldintza ekonomiko berriak berritze prozesua hasi baino lehen indarrean jartzea.

b) Ordutegien malgutasuna. Lanaren izaera dela eta, zuzendaritza taldeko kideek ordu gehiago egin behar dituzte kontratuen arabera dagozkienak baino —bereziki epe zehatz

batzuetan-, eta askotan (ikasturtearen hasiera eta amaieran, oporraldietan obrak egiten direnean,...), eskola egutegiaren eskolarik gabeko egunetan lan egin behar dute derrigorrean. Hortaz, zuzena da lansaia eta lan egutegia malgutzeko aukera ematea, baldin eta bermatzen bada kideon zereginak betetzen direla. Neurri hori 2004-05 ikasturtearen hasierako zirkularrera bil liteke.

c) Beste pizgarri profesional bat da zuzendaritza eta koordinazio lana karrera profesionalaren merezimendu gisa agertzea. Lekualdaketa lehiaketetan, zuzendaritza karguen merezimendu puntuazioa gehituko da.

Behin karguaren agintaldia amaituta, zuzendaritza karguetan sei urtez aritu izan direnek eskubidea izango dute lanbideen eguneratze epeaz gozatzeko, ordainsarien galerak jasan gabe.

d) Hasierako prestakuntza –karguan hastean- eta etengabea –kargua betetzen den bitartean-. Zuzendaritza taldeen prestakuntza plan berriari ekin baino lehen, komenigarria izango litzateke aurreko eta orain martxan dauden esperientziak sakon ebaluatzea. Eragingarriak izan diren bi ezaugarri ondokoak dira: prestakuntzaren alderdi praktikoa —gaiak aukeratzean, gaiok aztertzeako prozeduretan, emaitzak sortzeari buruzko ikuspegian— eta elkarlanerako dinamikak.